

MATIA

Fundazioa

Txara I eguneko zentroa

TXARA I GERONTOLOGIA ZENTROA

Zarategi pasealekua, 100
20015 Donostia
Telefona: 943 32 68 38
Faxa: 943 28 39 99



Matia Fundazioak 1888tik dihardu Gipuzkoan lanean, beren kabuz baliatzen ez diren adinduei eta haien senitartekoei laguntza ematen. Gaur egun, honako baliabide hauek ditu gure fundazioak: ospitale bat, sei gerontologia-zentro, eguneko bost zentro, errehabilitazioko zazpi zentro, gorputz-ezinduei zuzendutako unitate bat eta espezializatutako hainbat kontsulta-zerbitzu (adibidez, Oroimen eta Alzheimer Unitatea eta Gerontologia Ebaluazio eta Orientazioko Zerbitzua).

Bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta, banan-banako arreta osoa eskaintzen dugu. Adinduaren osasuna, autonomia, partaidetza eta gizarteratze-maila hobetzea dira gure kezkarik handienak: azken finean, adinduaren eta haren familiartekoen bizi-kalitatea areagotzea.

Arreta-eredurik aurreratuenak eta lan-talde lehiakor bezain konprometitua ditugunez, Matia Fundazioa erreferente bihurtu da adinduen zaintzaren sektore soziosanitarioan. Estatuko lehen entitate pribatua izan gara zerbitzu soziosanitarioetan kalitatearen ziurtagiri hirukoitza jasotzen eta kudeaketa-bikaintasunari emandako zilarrezko Q saria lortzen.

TXARA I gerontologia-zentroan, etxean zaindu ezin dituzten eta beren kabuz baliatzen ez diren adinduei eta haien familiei laguntzen diegu, eta bai batzuei bai besteei gure



zentroan sartzeko eta moldatzeko prozesua samurtzen saiatzen gara.

Zentroa Donostiako Intxaurren auzoan dago. Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eta Matia Fundazioak kudeatzen du. 1997an ireki zituen ateak eta instalazio zabal bezain modernoak eskaintzen ditu, erabiltzaileari kalitatezko zerbitzua eta inguru atsegina bermatzeko.

Honako zerbitzu hauek ditu:

- Egoitza zentroa
- Eguneko zentroa

EGUNEKO ZENTROA

Eguneko zerbitzu sozioasistentzial honek funtsezko beharretan eta behar terapeutiko eta soziokulturaletan zaintza eta laguntasuna behar duten adinduen familiei laguntzea du helburu eta, horrela, zaintzaile nagusiei arnasaldiak ematea. Eguneko zentroak, familiei adinduak zaintzen laguntzeaz gain, erabiltzailearen autonomia sustatzea eta hura familia-ingurunean zein gizartean integratzea ere lortu nahi du.

Banan-banako arreta espezializatua

Lehenik eta behin, hasierako balorazioa egiten zaio erabiltzaileari. Zentroko diziplinarteko talde bat arduratzen da zeregin horretaz. Balorazio horren emaitzen arabera, banan-banako zainketarako plana zehazten da. Gero, aldi berean, berrikusi egiten da plan hori, erabiltzailearen aldaketan eta behar berrien arabera egokitzeko.

Familiaz eta gizarte-inguruneaz ere arduratzen gara; horregatik, informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen diogu uneoro familiari: zentroan sartu aurretik, sartzeko egunean, egokitzen ari den aldi eta egonaldi osoan zehar.

Plazak

25 plaza

Ordutegia

Asteleheneratik ostiralera
09:00etatik 18:00etara

Gure langileak:

- zentroko zuzendaritza
- gizarte-langileak
- programak koordinatzen dituen psikologoa
- medikua
- erizaina
- laguntzaileak
- okupazio-terapeuta
- programen monitorea

Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

- Banan-banako arreta eguneroko jardueretan
- Medikua eta elikapen beharretara egokitutako dieta
- Prebentziozko geriatría-medikuntzako eta erizaintzako kontsultak
- Egokitutako garraio-zerbitzua
- Osasunari, aldarteari eta gaitasunei laguntzeko programak
- Lan eta aisia programak



INFORMAZIO GEHIAGO

Zentroaren zerbitzuei buruzko informazio gehiago nahi baduzu:

Txara I Gerontologia Zentroa

Zarategi pasealekua, 100
20015 Donostia
Telefona: 943 32 68 38
Faxa: 943 28 39 99
Helbide elektronikoa: txaral@matiaf.net
www.matiafundazioa.com

